

- **1987ko azaroaren 3an Plenoan onartutako akordioa.**

Udalbatzako kideen parte-hartzeak arautzearen eta baita eratutako talde politiko bakoitzaren inizatiba eta ekintzenak ere, aurreko osoko bilkuran arau batzuk ezartzea komeni zela ikusi zen. Gobernu Batzordean egin dira eta onartu behar dira:

#### AKORDIO PROIEKTUA

Zenbait talde politikoren eta udalbatzako kideen inizatibaren, ekintzaren eta osoko bilkuraren garapenerako, segidako sistema aurkezten da.

1.- **IRIZPENA** honakoa izango da: Osoko bilkuran aurkeztutako proposamena da, espedientea Batzorde Informatzaileak aztertu ondoren. Zati batean azalpenak daude eta bestean hartu beharreko erabakia.

2.- Eguneko Gai Ordenan sartuta dagoen gai baten inguruko proposamena Osoko Bilkuran aztertzen denean **PROPOSAMENA** izango da, deialdiarekin batera joango da, dagokion Informazio batzordeak aurretik horri buruzko inongo informaziorik EMAN GABE Alkate jaunak bere kabuz edo bozeramaile batek proposatuta sartuko da. Proposamen hauek **Politikoak edo Administratiboak** izango dira (Proposamen Politikoak izango dira orain arte Eguneko Gai Ordenean sartzen ziren Mozio Politiko bezala ezagutzen direnak). Biek zati batean azalpenak edo justifikazioak izango dituzte eta bestean hartu beharreko erabakia.

Proposamen Administratibo bat eguneko Gai Ordenean sartzeko behar bezala justifikatutako PRESAZKO ARRAZOIAK egon behar dute. Proposamena ez da eztabaidatuko edo bozkatuko, baldin eta aldeaz aurretik gaia eguneko ordenean sartzeko arrazoiak argitzen ez badira.

3.- **MOZIOA**, Osoko Bilkuran ZUZENEAN aurkezten den proposamena da. Eguneko gai ordenean sartutako gaiekin amaitu eta gero eta galde-erreguen puntura pasa aurretik sartu ahal izango da mozioa ahoz edo idatziz, presazko arrazoiren batengatik Alderdi politikoren batek deialdiarekin batera doan eguneko gai ordenean sartu gabe eta galde-erreguen puntuan sartzen ez den gairen bat aurkeztu nahi duen galdetzen duenean Alkateak.

Horrela gertatzen denean, mozioa aurkezten duen taldeak mozioak duen presa justifikatuko du eta eztabaidatu behar den edo ez erabakitzeko ondoren Osoko Bilkurak bozkatu egingo du. Bozketaren emaitza aldekoa bada, gaien tratamenduetarako zehaztutako prozedura aplikatuko da.

Atal honetan zehaztutakoak ez du zentsura mozioetarako balio inongo kasuan, eta bere tramitazioa, eztabaida eta bozketa Hauteskunde Orokorreko Arautegiak eta Udal honetako Arautegi Organikoak finkatuko dute.

4.- **BOTU PARTIKULARRA**, Informazio Batzordeko kide batek erabaki bat aldatzeko proposamena egiten du. Batzordeak onartzen duen hurrengo egunetik aurrera erabakiarekin batera jasoko da.

5.- **EMENDAKINA**, edozein kidek erabakiren bat edo Proposamen Político edo Administratiboren bat aldatzeko proposamena egiten duenean, idatziz aurkeztu behar dio Batzordeburuari osoko bilkura egin behar den egunaren bezperako eguerdiko ordu bata baino lehen.

6.- **ERREGUA**, Udaleko Gobernu Organu batzuei zuzendutako jarduera proposamena da. Osoko Bilkuran azaldutako erreguak eztabaidatu ahal izango dira baina ezin izango dira bozkatu inoiz.

Udalbatzako kide guztiek edo udal taldeek euren bozeramaileen bidez aurkeztu ahal izango dituzte erreguak.

Erreguak korporakideek edo Udal Taldeek beren bozeramaleen bidez aurkez ditzateke.

Erreguak ahoz edo idatziz egin daitezke eta orokorrean hurrengo bilkuran eztabaidatuko dira, baina Alkateari edo Batzordeburuari egokia iruditzen bazaio, aurkezten diren bilkura berean eztabaidatu ahal izango dira.

7.- **GALDERA**, Osoko Bilkuran Gobernu Organoei azaldutako edozein arazo edo gai da. Galderak, Udalbatzako kide guztiek edo udal taldeek bere bozeramaileen bidez aurkez ditzakete.

Bilkura batean ahoz egindako galderak, hartzaileak hurrengo bilkuran erantzungo ditu orokorrean, hala ere, galdera jaso duenak berehala erantzun dezake nahi badu.

Idatziz hogeitalau orduko aurrerapenarekin aurkeztutako galderak, bilkuran bertan erantzungo dira orokorrean eta bestela, behar bezalako arrazoiak ematen badira, hurrengoan.

**8.- EMENDAKINAK** Irizpena edo Proposamena bozkatuko aurretik bozkatuko dira.

Era honetan, proposamena (ez emendakinak) bozkatu aurreko edozein unetan indargabetu ahal izango du talde proposatzaileak aurkeztutako proposamena.